

1

HEZKUNTZAREN
ALDEKO
GOLA



Haur eta lehen hezkuntzarako
proposamen didaktikoa

HEZKUNTZAREN
Aldeko Mundu-kanpaina
www.cme-espana.org

Aurkezpena	3
Hezkuntzaren Aldeko Munduko ekintza-Astearen helburu orokorra	
Proposamen didaktikoaren helburu nagusiak	
Irizpide orokorrak	
Sakontzeko...	
3-5 urte (Haur-hezkuntza)	6
Helburuak	
1. jarduera. Munduko ikastetxeak ezagutzea	
2. jarduera. Jolas egiten dugu eta jolas egin dezaten uzten diegu	
3. jarduera. Hezkuntzaren aldeko GOLA: Ikasbide Handia	
6-8 urte (Lehen Hezkuntzako lehen zikloa)	8
Helburuak	
1. jarduera. Mundua imajinatuz...	
2. jarduera. Badakigu jolasten	
3. jarduera. Hezkuntzaren aldeko GOLA: Ikasbide Handia	
8-10 urte (Lehen Hezkuntzako bigarren zikloa)	10
Helburuak	
1. jarduera. Eskolak, munduko neska-mutil guztientzat	
2. jarduera. Arauak aldatuko ditugu	
3. jarduera. Hezkuntzaren aldeko GOLA: Ikasbide Handia	
10-12 urte (Lehen Hezkuntzako goi zikloa)	14
Helburuak	
1. jarduera. Informatu beharra	
2. jarduera. Zingira gurutzatzea	
3. jarduera. Hezkuntzaren aldeko GOLA: Ikasbide Handia	
Maila guztietarako jarduera. Hezkuntzaren aldeko GOLA: Ikasbide Handia	16
Helburuak	
Nola parte hartu Hezkuntzaren aldeko GOLA kanpainan?	
Eta baloiarekin zer?	
Ezagut ezazu Hezkuntzaren aldeko GOLAREN webgunea, eta egin bat	
Ebaluazioa	19



© Manuel Nacimiento Ponce

2010eko Hezkuntzaren Aldeko Munduko ekintza-Astea (HAMA) jarri da abian, **Hezkuntzaren aldeko GOLA** izeneko kanpainarekin. Hezkuntzaren aldeko Mundu Kanpainak eta FIFAk sustatu dute kanpaina hori.

2010eko ekainean, Munduko Futbol Kopa jokatuko da Hegoafrikan. Aukera bikaina da milioika lagunengana iristeko eta, aukera hori aprobetxatuz, gonbita luzatuko diegu eska diezaieten nazioarteko komunitateko agintariei haien agendan hezkuntzari lehentasuna emateko.

Guztionez Hezkuntzaren helburuak bete behar dituztela gogorarazteko urte garrantzitsua da 2010a, bost urte baino falta ez direlako herrialdeek helburu horiek betetzeko jarri zuten urtera iristeko (2015). Herrialde askotan, aurrerapen asko egin dira 2000. urteaz geroztik, besteak beste gai hauetan: Lehen Hezkuntza orokortzen (40 milioi neska-mutil gehiago joaten da orain munduan eskolara), eta neskek zein mutilak hezkuntzan sarbide berdintsua izaten (Bangladeshen, esaterako, mutil beste neska dago Lehen Hezkuntzan).

Dena den, gaur egungo joerek bere horretan jarraitzen badute, arrisku handia dago 2015erako ezarritako helburuak ez betetzeko. Munduan, 75 milioi neska-mutil dago eskolatu gabe (horietatik % 55 neska dira), eta, gaur egungo egoera aldatzen ez bada, 2015ean 29 milioi neska-mutil jarraituko dute eskolatu gabe. 774 milioi lagunek ez daki ez irakurtzen, ez idazten, eta horietatik bi heren emakumeak dira. Joerek bere horretan badiraute, 2015ean 700 milioi helduk izango dute faltan irakurtzeko eta idazteko behar den gutxienerako gaitasuna. Saharaz azpiko Afrikan, esaterako, Lehen Hezkuntzako 1.600.000 irakasle-lanpostu sortu eta kontratatu beharko lirateke bost urtean, Lehen Hezkuntzarako aukera jende guztiak izatea lortu nahi bada.

Testuinguru horretan, hezkuntzara bideratzen den Garapenerako Laguntza Ofizialak (GLO) izan duen geldialdiak arriskuan jartzen du eskolatu gabeko 70 milioi neska-mutilen etorkizuna. Krisi-garaietan, herrialde pobretuen ekonomia kolpatuetan krisiak duen eragina arindu egin dezake GLOk, eta etorkizun ekonomiko bidezkoagoa eraikitzen lagundu dezake. Baina datuak ez dira oso pozgarriak. Dena den, borondate politikoa dagoenean, herrialdeak batu egiten dira



© Ayuda en Acción

funtsak lortzeko; hala erakusten digute gobernuek finantza-sistema gaur egungo kritikik ateratzeko jarri zuten 400.000 milioi dolarrek.

Beste mehatxu bat da herrialdeek oso motel handitzen dutela hezkuntzarako inbertsio publikoa. Saharaz azpiko Afrikan, non 5-25 urte bitarteko munduko biztanleen % 15 bizi baita, munduan hezkuntzan egiten den gastuaren % 2 egin zen 2004ean. Hego eta Mendebaldeko Asian, % 7 izan zen hezkuntza-gastuaren ehunekoa, nahiz eta inguru horretan planetako biztanleen % 25 bizi den.

Horretaz gain, finantza-krisiaren eraginez, herrialdeetako aurrekontu nazionalak oso estututa daude, eta horrek eragin zuzena izango du hezkuntza-gastuan, hau da, irakasleen kontratazioan, azpiegituretan, hezkuntza-materialetan eta abar. Horri gehitzen badiogu herrialde pobretuetako familiek geroz eta pobrezia-egoera handiagoa dutela, ondoriozta daiteke hezkuntza-eskaria txikitu egingo dela, neska-mutil asko eskolatik erretiratu dituztelako etxeko ekonomiari laguntzeko.

Egoera horretan, Hezkuntzaren Aldeko Munduko ekintza-Astearen eta **Hezkuntzaren aldeko GOLA** kanpainaren ekintza guztiak aukera ezin hobea dira mundu osoko milioika lagun elkartu eta agintari politikoei 2000n sinatutako konpromisoak bete ditzaten eskatzeko, eta gehiago atzeratu gabe helburuak lor daitezen behar beste baliabide bideratu dezaten eskatzeko; izan ere, hori egiten ez badute, milioika lagunek hezkuntza-eskubiderik izan gabe jarraituko du.

Hezkuntzaren Aldeko Munduko ekintza-Asteak (HAMA) egoera bidegabeei aurre egiteko herritarren konpromiso aktiboa eta erantzukizun-zentzua sustatu nahi du haur, gazte eta helduengan, errealitate hori aldatzeko guztiok egin baitezakegu eta egin behar baitugu zerbait. Hezkuntzaren bidez bidegabekerien ondorioak (pobrezia, klima-aldaketa, hezkuntzarako aukera...), eta, bereziki, horien kausak azaldu behar dira.

LOEren esparruan, hiritartasun-eskumenak aukera ematen digu autoestimua, duintasuna, askatasuna eta erantzukizuna duten pertsonak garatzen laguntzeko. Horretaz gain, gizarte-kohesioari ere nabarmen laguntzen dio, eta tolerantzia, errespetua eta beste balio batzuk sustatzen ditu.

Helburu horrekin, demokrazia-laboretegi gisa ikusi behar da eskola, gizartearen pentsamendu kritikoa, giza eskubideenganako errespetua eta parte-hartze aktiboa sustatuko dituen laboretegi gisa. Azken finean, hiritartasun globala, tokiko nortasunarekin bateragarria, eraikiko duen eskola bat behar da, non guztiok izango dugun gure lekua.

Aurten hezkuntzaren aldarrikapena futbol-munduarekin lotzeak aukera ematen digu kirol horrek, eta beste batzuek, sustatzen dituzten balioak (talde-lana, adiskidetasuna, lana, hobetzea...) aprobetxatu eta ikasleekin lantzeko, proposamen didaktikoetako jardueren bidez. Horrez gain, aukera dugu beste eremu batzuk aprobetxatzeko —hala nola heziketa fisikoko eskolak edo ikastetxeko talde-entrenamenduak— hezkuntza-eskubidea eta bestelako gaiak lantzeko.

Hezkuntzaren aldeko GOLA izeneko ekintza Hezkuntzaren Aldeko Munduko ekintza-Asteak proposatzen du, gizarte zibil guztia —ikasleak, irakasleak, klase politikoa eta beste zenbait eragile— mobilizatzen, eta Guztiontzako Hezkuntza lortzea ahalbidetzen eta zailtzen duten alderdiei buruz hausnartzeko.



© 1 GOAL

Hezkuntzaren Aldeko Munduko ekintza-Astearen helburu orokorra

Klase politikoa eta iritzia publikoa hezkuntzak duen garrantziaz sentsibilizatzea, eta guztiontzako hezkuntza iraunkorraren eskubidea bete dadin premia jardun beharraz sentsibilizatzea.



Proposamen didaktikoaren helburu nagusiak

- Ezinbesteko inbertsiorik egin ez delako eta borondate politikorik ez dagoelako hezkuntza-eskubideaz baliatu ezin diren milioika lagunek bizi duten bazterketa-egoera ezagutzea.
- Bizitzan zeharko hezkuntza eskubide unibertsal eta funtsezko gisa balioestea, Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalean eta Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenean jasota dagoen moduan.
- Etengabeko hezkuntzak garapen pertsonalerako eta komunitariorako funtsezko elementu gisa duen garrantzia ulertzea.
- Herritar aktibo garen aldetik, bidegabeko egoeren aurrean dugun erantzukizuna onartzea, eta, bidegabekeria horiek aldatzeko edo errealitatea aldatzeko, guztiok egin dezakegula zerbait ulertzea.



Irizpide orokorrak

- Proposatutako jarduerak zenbait adin-taldetarako pentsatu dira, baina egokitu egin daitezke beste maila batzuetako ikasleekin ere erabiltzeko.
- Bideratzaileen esku uzten dugu jarduera bakoitzean zenbat denbora erabili erabakitzea, taldearen ezaugarri, dagoen denbora eta abarren arabera, bai eta jarduerak otsailetik apirilera zein egunetan egingo dituzten erabakitzea ere. Otsailean jasoko dituzte proposamen didaktikoak, eta apirilean egingo dugu HAMA.
- Ziklo bakoitzean, "hausnarketa-jarduera" eta "ekintza-jarduera" bana proposatu ditugu. Hezkuntza fisikoko eskoletan, atsedendietan, eskolaz kanpoko jardueretan, kirol-entrenamenduetan eta abar egin daitezke ekintzak, bai eta hezkuntza ez-arautuko esparruetan ere.
- "Irakasle" terminoa hezitzaileak, bideratzaileak eta abar aipatzeko erabili dugu, bai esparru arautukoak, bai ez arautukoak.



Sakontzeko...

- Proposamen honetan, gaia lantzeko jarduera simple batzuk azalduko ditugu. Dena dela, hezkuntza-eskubidea gai zaila da, beste gai askorekin erlazionaturik baitago.
- Zure ikasleekin hezkuntza-eskubideari buruzko gaia sakonago landu nahi baduzu, hemen dituzu zenbait baliabide, jarduerak eta materialak bilatzeko:
 - Web-orrialdean beste urte batzuetako HAMA asteetako proposamen didaktikoak aurkituko dituzu: Gazteak eta helduak alfabetatzea (2009), Hezkuntza eta bazterketa (2008), Hezkuntza-eskubidea (2007), Hezitzaileak (2006), Hezkuntza eta pobrezia (2005).
 - Espainiako GGKEren Koordinadoraren baliabide-gidan, sare horretako erakundeek proposatutako hainbat material eta esperientzia aurkituko dituzu.
 - HAMAREN kide diren erakundeek proposamenak ere ezagut ditzakezu.

Helburuak

- Neska-mutil guztiak inguru aproposan heztea zer garrantzitsua den ulertzea.
- Talde-loturak indartzea, eta talde-lanak duen garrantzia nabarmentzea.

1. jarduera: **Munduko ikastetxeak ezagutzea**

Eskola-agertoki desberdinak azaltzen dituzten argazkiak erakutsiko dizkie hezitzaileak ikasleei. Era askotako ikastetxeren irudiak biltzen saiatu behar da, esate baterako, ikasgeletan ikasle asko pilatzen diren eskolenak, teknologia berriak erabiltzen dituzten ikastetxeenak, eskola zer ingurunetan dagoen ikus daitekeen irudiak eta abar.

Argazkiei begiratzeko eta zer desberdintasun ikusten dituzten kontatzeko eskatuko zaie ikasleei: zenbat ikasle dauden ikasgelan, zer material erabiltzen dituzten, guztientzako lekuri badagoen... Haur horiek zer izen duten, haien etxeak nolakoak izango diren eta abar imajinatuko dute.

Munduko eskolatzeko baldintzen arabera errealitateetan ikusitako antzekotasunei eta desberdintasunei buruz hitz egingo dute. Hezitzaileak azpimarratu egingo du kalitatezko hezkuntza inguru aproposan jasotzea zein garrantzitsua den, haurrek hori balora dezaten. Irudiak ikusi eta ikusitakoari buruz hitz egin ondoren, istorio bat asmatuko dute guztiak.

Gure eskolara hurbiltzen

Paperezko
arbel handi batean,
eskola marraztuko du hezitzaile-
ak, eta eskolako eremu nagusiak markatuko
ditu: ikasgela, jangela, jolaslekua eta abar.

Eremu bakoitzean egiten denari eta horietako bakoitzak dituen funtzio-
namendu-arauei buruz hitz egingo dugu. Akuarelak edo margoak erabilia, eskolaren
marrazkia apaindu eta osatu egingo dute; atzamarrekin margotzeko pinturak erabiliz
ikasleak egon ohi diren lekuak markatuko dira. Askotan egoten diren lekuetan, arrasto
asko egongo dira, eta gutxiagotan egoten diren lekuetan, arrasto gutxiago...

Gure eskolako irudia neska-mutilez betetzea proposatuko zaie. Horretarako,
marrazkiak egingo dituzte ikastaldea irudikatzeke, bai eta eskolaz gozatzerako gonbidatu
nahi dituzten munduko neska-mutilak irudikatzeke ere (argazkietan ikusitako errea-
litateak kontuan hartuta). Haurren siluetak ebaki, eta margotu edo edozein materialez
(lekale, paper urre, paper-bolatxo, plastilina eta abar) beteko dituzte. Beren eskolako
paperezko arbelean irudikatutako haur bakoitzaren izena eta silueta pegatuko dituzte.

Horma-irudia ikusteko moduko lekuren batean jarriko da (eskolako korridorean edo
ikasgelako hormetako batean). Haurren familiartekoak gonbidatuko dira egindako lana
ikustera, eta nola lan egin duten eta eskola on batean ikasteko aukera izateak zer
garrantzia duen azalduko die neska-mutilek. Beren "arrastoa" eskolan utz dezaten
animatuko zaie.

2. jarduera: Jolas egiten dugu eta jolas egin dezaten uzten diegu

Psikomotrizitate-gelara joango gara, eta gela horretako arauak gogoraraziko zaizkie: zer gauza egin daitezkeen eta zer ez, eta arauak betetzea garrantzitsua zergatik den azalduko zaie. Hau nabarmenduko da: ezin da jo, ezin zaio inori oihu egin, gure gorputza zainduko dugu, gela zegoen bezala utzi...


Psikomotrizitate-gelako osagaiak erabilia (uztaiak, koltxonetak, sokak, pilotak, oihalak eta abar) hainbat zirkuitu egingo dira (taldearen adinera egokituak). Zirkuitu bakoitzaren amaieran, lehengo eskoletako baten argazkia jarriko da.

Ikasleek, txandaka edo binaka, zirkuituak zeharkatu beharko dituzte.

Adibidea:

1. zirkuitua: ikasleak zailtasun handirik gabe iritsiko dira zirkuituaren amaierara. Esate baterako, jauzika, pilotari jauziak eginaraziz, pilota zirkuituaren amaierara eskuz eramanez eta abar. Kasu horretan, eskolara joateko erraztasunak dituzten eta ikasteko baldintza onak dituzten ikasleen eskolako argazkia jarriko du hezitzaileak.

2. zirkuitua: ikasleak itzulginguru handiagoa eginez iritsiko dira eskolara, eta bidean aurkituko dituzten zailtasunak gainditu beharko dituzte. Esate baterako, uztai ez saltu egitea eta koltxonetan itzulipurdia egitea. Kasu horretan, eskolara joateko zailtasunak dituzten ikasleen eskolako argazkia jarriko da.



Saioa amaitzeko, guztiak lurrean eseri eta dauden aldeei buruz eta zenbait hurrek eskolara joateko dituzten zailtasunei buruz hitz egingo dute. Galdera hauek egin daitezke:

- Zer gertatu da 1. zirkuituan? Eta 2.ean?
- Zergatik izan dugu batean bestean baino zailtasun gehiago?

Gaur egun, munduko neska-mutil askok eskolara joateko zailtasunak dituztela azalduko die hezitzaileak ikasleei (eskola urrun dutelako, pobreak direlako, haur askok lan egin behar izaten duelako, genero-diskriminazioa dagoelako, irakasleak falta direlako, baliabidea eta material-eskasia dagoelako eta abar), eta guztien artean neska-mutil horiek eskolara joateko aukera izan dezaten zer egin daitezkeen pentsatuko dute.

3. jarduera: Hezkuntzaren aldeko GOLLA: Ikasbide Handia

Ikusi 14 orrialdea.



Helburuak

- Munduko neska-mutil guztiak kalitatezko hezkuntza izateak eta oinarriko baliabideak dituen ingurune batean heztea duen garrantzia ulertzea.
- Guztien artean adostutako arauak errespetatzeak duen garrantzia kontuan hartzea.

1. jarduera: Mundua imajinatuz...

Hezitzaileak biribil bat margotuko du lurrean, eta taldeko kideak biribilaren inguruan eseriko dira. Jarduera hasteko, ezagutzen dituzten eskolei buruz, telebistan edo liburuetan ikusitakoei buruz hitz egingo dute.

Hezitzaileak galdera hauek egingo ditu: Eskola guztiak berdinak dira? Munduko neska-mutil guztiak eskolara joan daitezkeela pentsatzen dugu? Nork du eskolara joateko zailtasun gehiago? Zergatik? Badakizue neska-mutil askok egunero hainbat kilometro egin behar dutela eskolara joateko?

Hezkuntzari eta hezkuntzarako aukerari buruzko munduko datuak ezagutzeko, informazio honekin jolastuko dugu. Ikasgelako neska-mutilen kopurua hartuko dugu erreferentzia gisa.

	20 laguneko ikasgela	25 laguneko ikasgela
Irakurtzen eta idazten dakite	1 lagunek	2 lagunek
Eskolara joan daitezke	10 lagun	13 lagun

Si el mundo fuera una aldea de 100 Personas" liburuko datuak. Ikeda Kayoko eta C. Douglas Lummis. El Aleph argitaletxea, Bartzelona, 2003.

Adibidea: 20 laguneko ikasgela

20 lagunetatik batek bakarrik daki irakurtzen eta idazten; horrenbestez, taldeko lagun bat bakarrik sartuko da biribilaren barrura. 20 lagunetatik 10ek du hezkuntzarako aukera, eta beste 10ek ez; horrenbestez, taldeko beste 9 neska-mutil sartuko dira biribilaren barrura.

Biribilaren barrura sartu diren lagunei jarduera simple bat egitea proposatuko zaie (istorio bat kontatu, elkarren arteko jolas bat egin, abesti bat abestu, dantzatu eta abar). Kanpoan geratutakoek begira egon baino ezin dute egin.

Jolasa amaitzen denean, hezitzaileak eskatuko die kontuan hartzeko biribilean ez dutela guztiak sartzerik izan, eta horri buruz pentsatzeko. Biribilaren barruan eta kanpoan geratu direnei zer gertatu zaien galdetuko die, nola sentitu diren batzuk eta besteak. Biribilaren kanpoan geratu direnak eskolara joateko aukerarik ez duten neska-mutilak irudikatzen dituztela azalduko die hezitzaileak, eta, beraz, guztiz gizarteratzeko zailtasun gehiago dituztela. Neska-mutil batzuek eskolara joateko aukera zergatik ez duten galdetuko die hezitzaileak ikasleei. Horretarako, inguru hurbilenean pentsatzeko esango die ikasleei (lagunak, bizilagunak, familia...):

- Ezagutzen dugu eskolara joaterik izan ez zuen norbait? Zergatik ez zuen joaterik izan?
- Ezagutzen dugu idazten eta irakurtzen ez dakien norbait? Nola moldatzen da egunerokotasunean?
- Lehen egin ezin genuen zer egin dezakegu orain idazten eta irakurtzen dakigula?
- Zergatik da garrantzitsua eskolara joateko aukera izatea?

Hezkuntzak pertsona bati zer aukera ematen dizkion aipatuko dugu, eta kalitatezko eta oinarritzko baliabideak aseta dauzkan hezkuntza izateak duen garrantziari buruz hitz egingo dugu.

Neska-mutil guztiek eskolara joateko aukera izan dezaten lortzeko zer egin daitekeen pentsatzeko eskatuko die hezitzaileak ikasleei. Konponbideak proposatu ondoren, hezitzaileak ikasle guztiei berriz ere biribilaren barrura sartzeko esango die, eta aurretik egindako jarduera errepikatuko dute.

2. jarduera: **Badakigu jolasten**

Ikasleak 4-5 laguneko taldetan banatuko dira, eta talde bakoitzari kaxa bat emango zaio, material hauek dituena:

- Egunkari edo aldizkari bat • Guraizeak • Zinta itsasgarria • Jogurt-ontziak • Botoiak • Oihala • Arkatz markatzaileak...
- Bururatu eta eskuratu dugun beste edozer material.

Kaxan topatuko dituzten materialak erabilia jolas bat asmatzeko eskatuko zaie, eta jolaserako arau argi eta adostuak egiteko. Fitxa honetan idatziko dituzte arauak.

JOLASERAKO ARAUAK		
Zenbat lagunek jolas dezake?	Neskak	Mutilak
Nor hasiko da?		
Nola jolasten da?		
Noiz amaitzen da jolasa?		
Edonork egin dezake jolas gure jolasean?		
Jolaserako datu garrantzitsuak		

Jolasak asmatu ondoren, pentsatu dituzten jolas-arauak idazteko eskatuko zaie taldeei.

Jolastera! Trukatu egingo ditugu idatzitako jolasak, talde bakoitzak beste batek asmatutakoan jolas dezan. Horretarako, ikasgelan ikusteko eta erabiltzeko moduko leku batean utziko dira jolasak, guztiak jolas guztietan ibil daitezten. Zalantzarik badute galdegin besterik ez dute.

Ondo jolastu ahal izan duten, nola ibili diren, arazorik izan duten, zein arazo, guztiek jolasteko aukera izan duten eta abar galde diezaieke hezitzaileak.

Zer gerta zatekeen idazten eta irakurtzen jakin izan ez bagenu? Jolaseko zer parte kostatu zaigu gehien? Edonork jolastu dezake asmatu dugun jolasean? Askok mugituz ez duten neska-mutilek ere bai?

Eta oraingo honetan, eta egunetik egunera, idazten eta irakurtzen jakiteak duen garrantzia nabarmenduko du hezitzaileak.

3. jarduera: **Hezkuntzaren aldeko GOLA: Ikasbide Handia**


Ikusi 14 orrialdea.



Helburuak

- Mundu guztiak, inongo arrazoigatik inor baztertu gabe, hezkuntza ona izateko aukera izateak duen garrantzia ulertzea.
- Taldea zuzentzen duten arauak egiten parte hartzeak eta arauak errespetatzeak duen garrantzia baloratzea.

1. jarduera: **Eskolak, munduko neska-mutil guztientzat**



Mapa: Munduko populazioa. www.photobucket.com

Munduko populazioaren banaketa adierazten duen planisferioa erakutsiko die hezitzaileak ikasleei.

Non bizi gara? Zer izen du gure herrialdeak? Zer kontinentetan bizi gara? Badakizue beste kontinenteek zer izen duten? Bidaiatu duzue beste kontinenteren batera?

Proposatutako galdera horien bidez, munduko populazioaren banaketari buruzko elkarrizketa zuzenduko du hezitzaileak, eta ikasleek zer eskualde landuko dituzten azalduko zaie.

Jarraian, planisferioaren eskema egingo da zoruan, eta ikasleak bost taldetan banatu (eskualdeak beste talde) eta tokatu zaien eskualdean aulkiak jartzeko esango zaie. Aulki horietan eseriko dira. Munduko populazioarekiko eskualde horrek duen biztanle-ehunekoa adieraziko du talde bakoitzak.

25 neska-mutilez osatutako talde baten kasuan (ikaskideen arabera proportzionalki handitu edo gutxituko da), honela banatuko dira:


Mendebaldeko Europa eta Ipar Amerika: 4 ikasle.

Saharaz azpiko Afrika: 4 ikasle.

Ekialdeko Asia eta Ozeano Bareko herrialdeak: 6 ikasle.

Latinoamerika eta Karibe: 3 ikasle.

Hegoaldeko eta Mendebaldeko Asia: 8 ikasle.



Ikasleek munduko eskualde desberdinetan pertsona-kopuru desberdinak bizi direla egiaztatuko dute beren tokitik, planisferioari begira. Jende gehien eta gutxien zein eskualdetan bizi den adieraziko dute, eta alderatu egingo dituzte eskualdeak.

Eskualde guztiek diru-kantitate bera dutela uste duzue? Zertarako behar da dirua? Ezinbestekoak al dira euroak eskolara joateko? Zertarako?

Proposatutako galdera horien bidez, munduan hezkuntzarako dagoen baliabide ekonomikoen banaketari buruzko elkarrizketa zuzenduko du hezitzaileak.

Diru gutxien jasotzen duten eskualdeei buruzko informazioa emango zaie, eta, horrenbestez, behar dituzten aulkiak eduki ezin dituztenei buruzkoa. Esandakoaren arabera, atera egin beharko dituzte aulkiak, eta honela geratuko dira banatuta:

- Mendebaldeko Europa eta Ipar Amerika: 4 aulki.
- Saharaz azpiko Afrika: 1 aulki.
- Ekialdeko Asia eta Ozeano Bareko herrialdeak: 4 aulki.
- Latinoamerika eta Karibe: 2 aulki.
- Hegoaldeko eta Mendebaldeko Asia: 2 aulki.

Zenbat haur geratu da aulkirik gabe? Zer eskualdek du dirurik gehien? Eta zer eskualdek gutxien? Zer gertatuko da eseri ezin diren neska-mutilekin? Zer gertatzen da eskolara joan ezin diren neska-mutilekin? Zer gertatzen da eskolara joan aurretik edo ondoren lanera joan behar duten neska-mutilekin? Zer gertatzen da eskolara joan aurretik eta ondoren behar bezala jan ezin duten neska-mutilekin?

Jardueraren amaieran, gozoki-saski bana emango zaio talde bakoitzari; eskola-baliabideen izenak dituzten karteltxoak jarrita izango dituzte gozokiek: arkatza, liburua, koaderno, eskola, kalitatea, maitasuna, gozotasuna... Saski bakoitzak talde/eskualde bakoitzean utzi diren aulki adina gozoki izango ditu, Mendebaldeko Europa eta Ipar Amerikakoek izan ezik, aulki baino gozoki gehiago izango baitituzte.

Neska-mutil guztiek jan ditzakete? Iristen dira guztientzat edo sobera daude? Iristen ez badira, dituzten gozokiak guztien artean eta modu berdintsuan banatu daitezke? Zenbat haur geratu da gozokirik/baliabiderik gabe? Bidezkoa da batzuek gozoki/baliabide gutxiago izatea, edo bat ere ez izatea?

Bidezkoa da munduko zenbait tokitan neska-mutilak eskolara ez joatea, edo lanerako materialik edo irakaslerik ez izatea?

Iturria: Plataforma 2015 y más erakundearen gida didaktikoko proposamenaren egokitzaipena.

Bidegabekeria hori konpontzeko erantzuna edo desioa kartoi mehe batean idatziko dugu, gozoki-forma emanez, eta ikasgelan jarriko dugu.

Aulkiak lehengo lekuetara bueltatu, esertzeko esan eta gozokiak banatuko dizkiegu ikasle guztiei.

2. jarduera: Arauak aldatuko ditugu

Futbol-arauak oinarri hartuta, jolas bat sortzeko arauak asmatu beharko dituzte ikasleek. Helburua da neska-mutilek berdintasun-egoeran parte hartu ahal izatea jolasean, talde-lana eta lankidetzaren sustatuta.

Gaira inguratzeko, honi buruz hitz egingo dugu:

- Zer ezaugarri izan behar ditu futbol-jokalari on batek?

Aipatzen ez badituzte, gai hauetaz galdetu:

- Garrantzitsua da jokalariei batek arauak errespetatzea?
- Zer gertatzen da joko-arauak errespetatzen ez badira?

Horren ondotik, futbol-arauak oinarri hartuta —non bi taldek elkarri gol sartzea baitute helburu— arau batzuk aldatu eta beste batzuk sortzen saiatuko gara neska-mutilek talde-lanean jardun dezaten, elkarrekin lan egin dezaten eta guztiek parte-hartzeko aukera emango duten estrategiak diseina ditzaten.

Korfbal-a hartuko dugu adibidetzat, zertaz ari garen jakin dezaten. Testu hau irakurriko diegu:



Korfbal

Saskibaloien antzeko kirola da korfbal-a; helburu bera du. Baloia aurkako taldearen saskian sartu behar da. Jokodena bukatzen denean, puntu gehien lortu duen taldea izango da irabazlea. Baina korfbal-ak lankidetzaren eta elkarlana sustatzen ditu, eta neska-mutilek elkarrekin jolas dezaten laguntzen du.

Ezaugarri hauek nabarmendu daitezke:

1. Kirol mistoa da (taldekide erdiak neska dira, eta beste erdia mutilak).
2. Rolak aldatzen dituzte jokalariek. Erasotzen hasten direnak defenditu egiten dute gero, eta alderantziz.
3. Taldea osatzen duten lagunen arteko lankidetzaren eta estrategien pentsatzea bultzatzen dute arauak.
4. Egoera fisikoko aldeak gutxitu egiten dira.
5. Neska eta mutilek berdintasun-egoeran hartzen dute parte.
6. Jokaldietan arrakasta izateko, taldekideen laguntza behar da, ezinbestez.
7. Agresibitatea oso kontrolatuta dago kirol honetan.

Araudi-murrizketak daude, baldintza horiek izan daitezen:

Ezin da:

1. Baloia duzula korrika egin edo ibili, baina bai pibotatu.
2. Baloiarekin bakarrik jolastu (driblatu).
3. Baloia taldekide bati "eskutik eskura" eman.
4. Jokoa atzeratu, premiazkoa ez bada.
5. Aurkaria jo edo aurkariari baloia eskutatik kendu.
6. Aurkaria bultzatu, kolpatu edo traba egin.
7. Lehendik defendatuta dagoen aurkari bat defendatu.
8. Defentsa-eremutik saskira jaurtiki.
9. Saskirako jaurtiketa batean zutoina mugituz eragin.
10. Abantaila hartzeko zutoina mugitu edo hari heldu.
11. Baloia 4 segundoan baino gehiagoan atxikita eduki
12. Zure eremutik kanpo jolastu (jolas-eremu bakoitzean, talde bakoitzeko 4 lagun egoten dira, batzuek defendatu egiten dute, eta besteek eraso. Partiduaren erdian aldatu egiten dira rolak).

Irakurtzen amaitu ondoren, hau galdetuko diegu:

- Zer arauk laguntzen diote kirol mistoari? Zer arauk ezabatzen dute agresibitatea?
- Zer da talde-lana eta elkarlana?

Galdera horiei buruz hitz egiten utziko zaie, eta futbol-arauekin gauza bera egin dezaten proposatuko zaie.

- Zer arau sor genezake neska-mutilek elkarrekin jolas dezaten? Zer arau sor genezake, elkarlana eta talde-lana bultzatzeko?

Proposamenak idatzi eta horietatik zein aplikatu adostuko da, behin arauak sortu eta gero, jolasarekin hasiko gara.

Gehiago jakin nahi baduzu...

www.nosmovemosyaprendemos.blogspot.com/2009/04/korfbal-deporte-basado-en-la.html

www.es.wikipedia.org/wiki/Korfbal

www.efdeportes.com/efd104/balonkorf-deporte-mixto-para-la-coeducacion.htm

3. jarduera: Hezkuntzaren aldeko GOLLA: Ikasbide Handia

Ikusi 14 orrialdea.



Helburuak

- Guztiontzako hezkuntza lortzeko beharrezko funtsak bideratzea ezinbestekoa dela adieraztea.
- Garapenerako eta amaierako emaitzarako elkarrekin lan egitea garrantzitsua dela kontuan hartzea.

1. jarduera: Informatu beharra



Munduko hezkuntza-eskubideen egoerari buruzko informazio-/sentsibilizazio-kanpaina diseinatzeko proposatuko zaie ikasleei, eta ikastetxeko gainerako hezkuntza-komunitateari aurkeztuko zaio kanpaina.

Hasteko, giza eskubideei buruz zer dakiten galdetuko die hezitzaileak ikasleei. Eskolara joatea eskubidea dela uste duten, eta zergatik galdetuko die hezitzaileak. Hain zuzen, eskubidea dela ikusiko da, eta, giza eskubidea denez, nazioarteko hainbat dokumentutan jasota dagoela. Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren 26. artikulua irakurriko da, eta artikulua ezarritakoa betetzeak duen garrantziari buruz hausnartuko dute.

Munduko haur guztiek eskubide hori izateko zortea duten galdetuko die hezitzaileak.

Eskolara joateko aukera izateak duen garrantziari buruz kontzientziatzeko, gai horri buruzko sentsibilizazio-materiala sor dezaten esango zaie.

Horretarako, bost taldetan banatuko dira ikasleak. Talde bakoitzak kontinente bat landuko du, eta eskualde horiei buruzko informazioa bilatuko du: Zer herrialdek osatzen dute kontinente horietako bakoitza? Nola bizi dira haurrak herrialde horietan? Nolakoak dira haien etxeak? Nolako garraiobideak dituzte? Zertan ematen dute eguna? Zer lan-mota dituzte gurasoek? Zer arropa dute? Zer jaten dute?

Datuak bilatzeko, ikasgelan ondorengo web-orrialdeak kontsultatzeko aukera emango die hezitzaileak ikasleei:

- Hezkuntzaren aldeko Mundu Kanpaina: www.cme-espana.org
- UNESCO: www.unesco.org/es/education/worldwide

Aurkitutako informazioa taldeka lantzeko eskatuko diegu. Horri esker, pobreziaren eta kalitatezko hezkuntza-eskubidea izateko aukeraren artean zer-nolako erlazio estua dagoen jakingo dute.

“Hezkuntza munduan” izenburua hartuta, lehen hezkuntzako gainerako ikasleei beren ikerketen berri emateko materialak eta jarduerak prestatuko dituzte. Lana egiteko hainbat formatu erabil ditzaketela esango die hezitzaileak: horma-irudiak, idatziak, marrazkiak, argazkiak, irratsaioen simulazioak, bideoak eta abar.

2. jarduera: Zingira gurutzatzea

Psikomotrizitate-gelan edo heziketa fisikoko eskolan egingo da jolas hau. Helburua hau dela esango zaie: talde guztiak batera gela alderik alde gurutzatzea, leku horietan izaten den materiala erabilia.

Abiaturuko agindu hau emango zaie:

Oinetakorik gabe egin behar dute jolasa. Ezin da lurra ukitu gelako alde batetik bestera joateko, hau da, zingiraren ertz batetik bestera joateko.

Materiala: bi koltxoneta, horma-barrak (halakorik ez badago, bankuetatik edo gorago dagoen leku batetik has daiteke, eta azalera lau bat erabili, papera edo kartoia, koltxoneten ordez).

Talde guztia horma-barretara igoko da, eta bi koltxonetak beren azpian jarriko dituzte. Horma-barretatik koltxonetetako batera igaroko da taldea, eta hortik aurrera beste ertzera (beste aldeko horma-barretara) iristeko zer egin pentsatzen hasi beharko dute. Ikasleek taldean egin behar dute lan, koltxonetak oso astunak baitira, eta ezingo baitituzte mugitu, talde osoak batera egiten ez badu. Arazoari irtenbidea aurkitzen hasiko dira. Ikasle guztiak beste ertzera iristen direnean bukatuko da jolasa, hau da, horma-barretara igotzea lortzen dutenean.

Jokoa amaitzen denean, komunikazioari eta jolas honetan komunikatzen jakiteak izan duen garrantziari buruz hitz egingo dugu ikasleekin, koltxonetekin aurrera egiteko ideiak eta konponbideak proposatu, proposatutakoak entzun, eztabaidatu eta praktikan jarri behar izan baitituzte. Talde-hausnarketa egiten dugun heinean, garrantzitsua da ikasleekin jolasa nola egin duten aipatzea.

Jolasaren garapenari buruzko galderak eta helburura iristeko sortu diren aukerei buruzkoak ere egingo ditu hezitzaileak. *Zer konponbide aurkitu dugu beste ertzera iristeko? Ba al zen beste aukerarik? Bakarrik iritsiko ginateke?*

Arazoren bat konpontzeko beste pertsona batzuekin elkarlanean aritutako egoeraren bat gogora ekartzeko aprobetxa daiteke hausnarketa, bai eta gizartean lorpenak izateko jendea batu den adibiderik gogoratzen duten jakiteko ere. Manifestazioei, sinadura-bilketei, ongintza-kanpainiei eta abarri buruzko adibideak jarrita lagundu diezaiekegu.

Zer lortu nahi zuten? Lor daiteke ezer jendea hobeto bizi dadin, guztiok parte hartzen badugu?

Kasu honetan, Hezkuntzaren aldeko Mundu Kanpaina parte hartzen ari direla esango diegu, munduan hezkuntza-eskubidea bete dadin lortzeko.

Beren gizarteko pertsonen bizimodua hobetzen zertan parte har dezaketen galdetuz buka daiteke jarduera.

3. jarduera: Hezkuntzaren aldeko GOLA: Ikasbide Handia

Ikusi 14. orrialdea.





IKASBIDE HANDIA

Maila guztietarako jarduera

Helburuak

- Hezkuntza-eskubideari eta 2015ean guztiontzako hezkuntza lortzeko herrialdeek hartutako konpromisoak betetzeari buruz landutakoa laburbiltzea.
- Mundu mailako mobilizazio-jardueran parte hartzea.



Hezkuntzaren Aldeko Munduko ekintza-Astean (HAMA) mundu osoko milioika lagun mobilizatuko da **Hezkuntzaren aldeko GOLA** goiburua dutela, agintari politikoei guztiontzako hezkuntza lortzeko 2015erako hartu zituzten konpromisoak bete ditzaten beharrezko baliabideak erabil ditzaten eskatzeko.

2010eko ekainean Hegoafrikan egingo den munduko futbol-txapelketa aukera ona izango da, milaka lagunek **Hezkuntzaren aldeko GOLA** sartzeko. 30 milioi lagun baina gehiagoren laguntza lortzea da gure helburua.

Nola parte hartu Hezkuntzaren aldeko GOLA kanpainan?

Aurten zure ikastetxea Ikasbide Handian parte hartzera gonbidatu dugu. Apirilaren 20an izango da munduko hainbat lekutan aldi berean. Ehun herrialde inguruko ikastetxeek eta kontinente guztietako hainbat futbolari eta kirolari hartuko dute parte milioika neska-mutilekin batera guztiontzako kalitatezko hezkuntza-eskubidearen alde. Munduko partaidetza-errekorra egin nahi da: Ikasbide Handia.

Ikasleek proposamen didaktikoan landutako guztia laburbiltzea eta ikasitakoaren gainean hausnartzea da Ikasbide Handiaren helburua. Tokiko politikariak eta kirolarekin erlaziozko pertsonaiak gonbidatuko dira bertan parte hartzera.

Ikasbide Handian bildutakoa idazteko, futbol-baloi bat erabiliko dugu.

Txantilo bat emango dizuegu; txantilo hori handitu egin dezakezue, baloia nahi bezain handi egiteko. Ikasle, ikasgela edo talde bakoitzak hau idatziko du baloian:

- Lauki laranjetan: zer alderdik lagunduko duten 2015ean guztiok hezkuntza-eskubidea lortzen.
- Lauki orlegietan: zer alderdik zailtzen duten hori lortzea.

Ikasleen adinera gehien egokitzen den teknika erabil dezakezue: marrazkiak, collageak, idazlanak eta abar. Baloi egiteko beste material batzuk ere erabil ditzakezue (oihala, feltroa, matxe-papera).

Eta baloiarekin zer?

Zenbait gauza egin ditzakezue:

- Ikastetxean egindako baloi guztiekin erakusketa antolatu.
- 2010eko HAMAn parte hartuko duten ordezkari politikoei edo kirolariei eman.
- 2010eko HAMAn erabili eta partidu bat egin, 2015ean guztion eskubidea izan dadin, hezkuntzak gainditu beharko dituen trabak eta izango dituen aukerak irudikatuz.

www.cme-espana.org orrialdean hau aurkituko duzu:

- 2010eko HAMAn zure ikastetxean jarduera gehiago egiteko ideiak.
- Errekorrean izena emateko fitxa.
- Baloi egiteko txantiloia.


Materialak lantzen, baloiak egiten edo partidua jolasten ari zaretela ateratako argazkiak ere bidal ditzakezue.

(Zuek bidalitako argazkiak materialetan eta Hezkuntzaren aldeko Mundu-Kanpainaren Espainiako webgunean erabiliko dira).

Ezagut ezazu Hezkuntzaren aldeko GOLA webgunea, eta egin bat

www.1gol.org web-orrialdean sinatzea eta zure babesa adieraztea da **Hezkuntzaren aldeko GOLA** kanpainarekin bat egiteko beste modu bat. Jarduera hori ikasleekin batera egin daiteke, kanpainaren web-orrialdean haiekin sartuz. Hala, bertan babesa adierazteaz gain, hezkuntzak pertsonen bizimodua nola aldatzen duen jakin, kanpainako berriak ezagutu edo munduko beste toki batzuetan egiten diren jardueren berri izan ahal izango baitute.

Bestetik, zapatako edo zapatilako lokarri bat eskumuturrean lotuta ere adieraziko duzu kanpaina babesten duzula.



Haur eta Lehen Hezkuntzako proposamen didaktikoa balioesteko galdetegia

2010eko Hezkuntzaren Aldeko Munduko ekintza-Astea (HAMA)

IKASTETXEAREN IZENA ETA HERRIA

.....

ZER MAILEK HARTU DUTE PARTE?

- Haur-hezkuntza
- Lehen hezkuntzako 1. zikloa
- Lehen hezkuntzako 2. zikloa
- Lehen hezkuntzako 3. zikloa

MAILA BAKOITZEKO ZENBAT GELEK HARTU DUTE PARTE?

.....

ESKU HARTU DUTEN HEZITZAILEEN IZENAK

.....

.....

ZER IRAKASGAITAN EDO ESKOLA-JARDUERATAN LANDU DUZUE HAMA?

.....

.....

LEHENDIK ERE PARTE HARTU DUZUE HAMAN? ZEIN URTETAN?

.....

.....

BALIOETSI 1ETIK (MAILARIK BAXUENA) 5ERA (MAILARIK HANDIENA) PROPOSATUTAKO HELBURUEN EGOKITASUNA, ETA HEZKUNTZA-MAILA BAKOITZERAKO PROPOSATUTAKO JARDUEREN EGOKITASUN-MAILA.

3-5 urte (Haur-hezkuntza)

• Helburuak	1	2	3	4	5
• 1. jarduera. Munduko ikastetxeak ezagutzea	1	2	3	4	5
• 2. jarduera. Jolasten dugu eta jolas egin dezaten uzten diegu	1	2	3	4	5
• 3. jarduera. Hezkuntzaren aldeko GOLA: Ikasbide Handia	1	2	3	4	5

Lehen Hezkuntza

6-8 urte (Lehen zikloa)

• Helburuak	1	2	3	4	5
• 1. jarduera. Mundua imajinatuz...	1	2	3	4	5
• 2. jarduera. Badakigu jolasten	1	2	3	4	5
• 3. jarduera. Hezkuntzaren aldeko GOLA: Ikasbide Handia	1	2	3	4	5

8-10 urte (Bigarren zikloa)

• Helburuak	1	2	3	4	5
• 1. jarduera. Eskolak, munduko neska-mutil guztientzat	1	2	3	4	5
• 2. jarduera. Arauak aldatuko ditugu	1	2	3	4	5
• 3. jarduera. Hezkuntzaren aldeko GOLA: Ikasbide Handia	1	2	3	4	5

10-12 urte (Hirugarren zikloa)

• Helburuak	1	2	3	4	5
• 1. jarduera. Informatu beharra	1	2	3	4	5
• 2. jarduera. Zingira gurutzatzea	1	2	3	4	5
• 3. jarduera. Hezkuntzaren aldeko GOLA: Ikasbide Handia	1	2	3	4	5

BALIOETSI ALDERDI HAUEK, 1ETIK (MAILARIK BAXUENA) 5ERA (MAILARIK HANDIENA)

• Jasotako material-kantitatea	1	2	3	4	5
• Materialak jasotako eguna	1	2	3	4	5
• Proposamena ikastetxeko programan sartzeko aukera	1	2	3	4	5
• Hurrengo ikasturteetan HAMA lantzeko interesa	1	2	3	4	5

OHARRAK, IRADOKIZUNAK ETA HOBETZEKO PROPOSAMENAK

.....

.....

.....

Bete galdetegia eta bidali fax-ez 93 412 40 36 zenbakira, edo deskargatu www.cme-espana.org webgunetik eta bidali posta elektronikoz same@cme-espana.org helbidera



© InteRed

© Ayuda eb Acción

Hezkuntzaren aldeko Munduko Kanpainaren Koalizioa ondokoek osatzen dute:



Laguntzaileak:



Estatu mailan, HAMAn ondokoek parte hartzen dute:

